



cajasur 

SAMSUNG

Prentsa-oharra

Kutxabank eta Cajasur Samsung Pay mugikorrez ordaintzeko zerbitzura atxiki dira

Gaurtik aurrera banku-erakundearen bezeroek euren Samsung *smartphone* edo *smartwatch* bidez egin ditzakete ordainketak

2019ko ekainak 20- Samsung Electronics Co. Ltd. erakundeak berretsi egin du Samsung Pay zerbitzua Kutxabanken eta Cajasur-en bezero guztien eskura dagoela. Gaurtik aurrera, erosketak eta ordainketa-transakzioak egin ditzakete euren *smartphone* eta erloju adimendunen bitartez. Beste alde batetik, Espainian bi milioitik gora erabiltzaile ditu erregistratuta dituen Samsung Pay komunitateak zure Kutxabank eta Cajasur txartelak sar ditzake plataforman, hartara, mugikorrez ordaintzeko dituzun aukerak zabaldu egingo dira.

“Oso pozik gaude Kutxabank eta Cajasur Samsung Pay gure ordainketa-zerbitzuan integratu direlako. Horri esker, Samsung telefono eta *smartwatch* erabiltzaileek ordainketa-sistema eroso, erraza eta seguruaz gozatu ahal izango dute. Gure erabiltzaileei ahalik eta onura gehien eskaintzen jarraitzea da helburua, Samsung Payren abantaila onenak goza ditzaten”, ziurtatu du Celestino García, Samsung Espainiaren presidenteorde korporatiboak.

Bere aldetik, Eduardo Ruiz de Gordejuelak, Kutxabanken zuzendari nagusiak, hauxe adierazi du: “Bere sektorean liderra den Samsung enpresarekin lankidetzan aritzeak Kutxabankek duen ordainbide-eskaintza zabaltzen du, eta gure apustu estrategikoetako batekin lotura zuzena du, hau da, gure banka digitaleko erabiltzaileen esperientzia hobetzea, gure bezeroei balio erantsia eskainiz, ohitura eta portaerak oso azkar aldatzen ari diren testuinguru honetan”.

Kutxabank eta Cajasur atxikita, Samsung Pay-k bere akordio-sarea zabaltzen jarraitzen du, plataformaren erabiltzaileei zerbitzurik onena eskaintzeko eta ordainbidea errazteko edozein egoera motatan. Espainia izan zen mugikorraren bidez ordaintzeko zerbitzu hori eskaini zuen Europako lehendabiziko herrialdea, eta mundu mailan, 5 kontinentetan eta 24 herrialdetan dago erabilgarri.

TPV bat edo *contactless* txartelen irakurgailua duen edozein saltegitan erabil daiteke Samsung Pay, NFC teknologiaren bidez. Erabiltzaileek euren zordunketa edo kreditu txartelaren alta egin behar dute euren gailuan eta saltegitiko TPVra edo txartel irakurgailura hurbildu. Jakinarazpen bat jasoko du erabiltzaileak ordainketa egin ostean.



cajasur 

SAMSUNG

Samsung Electronics Co., Ltd. erakundeari buruz

Samsung mundua inspiratu eta ideia eta teknologia eraldatzailez eraikitzen ari da etorkizuna. Telebistak, *smartphone-ak*, *wearable-ak*, tabletak, etxetresna elektrikoak, sare-sistemak, memoriak, LSI sistemak, erdieroaleen fabrikazioa eta LED irtenbideen mundua berriz definitzen ari da konpainia.

Informazio gehiago nahi izanez gero, mesedez, jo ezazue <https://news.samsung.com/es/> webgunera.